

ANDOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

GEHIAGO, GEHIAGOTAN, GEHIAGOREKIN...

Euskaraz, noski, Andoainen ere, ahoz aho, bizi-bizi. Horixe baita euskararentzat nahi dugun etorkizuna, egunerokoa hizkuntza bizia izatea, alegia. Horretarako bidea, ez gaitezen engaina, ondo jakina da: erabiltzea, erabiltzen dugun baino gehiago, erabiltzen dugun baino gehiagotan, erabiltzen dugun baino jende gehiagorekin. Eta hori egin dezakegun zerbait da, gure eguneroko harremanetan denok erabili dezakegu euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin. Udalak berak, udalkideek eta herritarrek oro har. Euskaraz hitz egiten dakitenek eta hitz egiteko zailtasunak izan arren ulertzen duten guztiek.

Horregatik, 2020ko Euskararen Egunean, Andoaingo Udalak, beste inori ezer eskatu aurretik, euskararekiko duen konpromisoa berretsi eta indartu nahi du. Konpromiso hori bikoitza da: batetik, Udalaren eremuan euskaraz aritu nahi duten herritarrei hartarako aukera egiazki bermatzeko konpromisoa; eta, bestetik, euskaraz gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin aritzeko konpromisoa.

Pozik ikusten dugu euskarak aurrera egin duela Andoainen ere azken urte luzeetan. Horrek pozten gaitu eta poz hori ozenki adierazi nahi dugu Euskararen Egunean. Andoaingo herriak badu zer ospaturik abenduaren 3an. Horregatik dugu Euskararen Eguna ospakizun eguna. Baina ozentasun berberaz eta arduraz beterik adierazi behar dugu, etorkizuna hemendik aurrera egiten dugunaren esku dagoela, ez baitago inon idatzita zein izango den euskararen etorkizuna gure herrian, hain zuzen ere gaurko eta etorkizuneko belaunaldien esku dagoelako euskara biziberritzen jarraitu edo piskanaka itzaltzen utzi. Eta partida hori erabileran jokatzen da. Horregatik diogu, gehiago, gehiagotan, gehiagorekin, ahoz aho, bizi-bizi, euskaraz, noski.

Adierazpen honetan ere gogoan izan nahi ditugu koronabirusak erasotu dituen andoaindarrak, batzuk heriotzeraino erasotu ere. Gogoan izan nahi ditugu egunero-egunero herritar guztiak birus horrengandik babesteko lanean ari diren osasun arloko profesionalak. Bihoakie denei, gaitzak modu batean edo bestean jo dituen andoaindarrei eta lanean diharduten profesionalei Euskararen Eguneko oroitzapen beteena. Hain zuzen ere gaur bukatu da Euskaraldiaren bigarren aldia, zeina koronabirusaren eraginez aski baldintza zailtan egin behar izan den. Koronabirusak ez du ezer onik, inguru guztia okertzen du, gure bizitzak oso modu txar eta gogorrean baldintzatzen ditu eta herritarren arteko harremanak zailtan ditu. Oztopo izaten ari da euskararen gurdari bultzatze egiteko, eta oztopo izan da Euskaraldia bezalako ekimen kolektibo bat modu arrakastatsuan antolatu eta aurrera eramateko. Baina, zailtasunak zailtasun, Euskaraldiak neurri bikainean aktibatu ditu Andoainen ere ehunka euskaldun, batzuk ahobizi eta besteak belarriprest. Euskaraldia denon bultzadaz garatu den ekimena izan da, oraingoan ere. Udala hasieratik hor egon da, bultzatzen eta babesten. Zorionak eta eskerrik asko antolaketa lanetan aritu diren herritarrei, eta, nola ez, zorionak eta eskerrik asko hango eta hemengo ariguneetan parte hartu duten andoaindarrei.

Berriro ere ikusi dugu posible dela euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin erabiltzea. Ikusi dugu kasu askotan oso erraz egin daitekeela hori, eta beste kasu askotan kostatu egiten dela, ez dela erraza, ahalegina eskatzen duela, egia da, baina egin daitekeela. Euskaraldiaren amaiera honetan, Udalak, berak bere burua lehenik eta Euskaraldian parte hartu duten andoaindar guztiak hurrena, denak gonbidatzen ditu Euskaraldian egin dugun euskararen erabilera urtearen 365 egunetara zabaltzeko ahaleginak egitera. Horixe da Euskararen Egunean hartu dezakegun konpromisorik eraginkorrena, eta hori da Udalak herritarren aurrean hartzen duena.

Euskarak, behar, hiztunak eta erabiltzaileak behar ditu urtearen 365 egunetan. Astindu ditzagun, beraz, gure hizkuntza-ohiturak. Uxatu ditzagun beldurrak, eta bakoitzak ahal duen mailan eta neurrian egin diezaiozun euskarari gero eta toki handiagoa eguneroko harremanetan. Euskararik ez dakiten andoaindarrak ere anima daitezela euskararantz pauso bat ematera, mundu oso bat baitute irabazteko. Horixe, bada, Udalaren konpromisoa 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunean: gehiago, gehiagorekin, gehiagotan, euskaraz, noski, ahoz aho, bizi-bizi, Udalak eta andoaindarrek ere.

Andoainen, 2020ko abenduaren 3an